

Talde arteko harremanen eragina jarduera fisiko inklusiboetan: pilotarien sinesmenak aztergai

Uxue Fernandez-Lasa*, Itsaso Nabaskues Lasheras**, Jurgi Olasagasti Ibargoien***, Oidui Usabiaga Arruabarrena**

*Deustuko Unibertsitatea **Euskal Herriko Unibertsitatea (UPV/EHU) ***Gipuzkoako Kirol Egokituen Federazioa

Ikerketa honetan urritasunik ez zuten pilotarien ustetan talde arteko harremanak euskal pilota inklusiboagoa bilakatzeko izan zezakeen eragina aztertu zen. Euskal pilotan ziharduten federatutako eta federatu gabeko 15 pilotari elkarrizketatu ziren bi talde-eztabaida saiotan. Galdekatuek adierazi zuten kideen arteko erlazioei dagozkien hainbat baldintza betetzeak euskal pilota inklusiboagoa egiten lagunduko lukeela, besteak beste, urritasuna duten pertsonak estatus bereko ikusteak, helburu komunak edukitzeak, taldekide sentiarazteko kideen artean elkar laguntzeak, (in)formazioaren gaineratik elkar ezagutzeko esfortzua egiteak eta edonori adiskide izateko aukera eskaintzeak. Taldekideen arteko harremanak partaideen aurreiritziek baldintzatzen zituzten askotan, baina izandako esperientzia puntualek asko lagundu zieten horiek ekiditen. Aurrera begira, kontuan hartu beharko litzateke proiektu inklusiboak diseinatu eta abian jartzean epe luzearako jarduerak eragin positiboagoak dituztela.

GAKO-HITZAK: Euskal pilota · Inklusibitatea · Adimen-urritasuna · Talde arteko harremanaren teoria.

Interpersonal group relations in inclusive physical activities: Basque pilota players' beliefs on focus

In this study, the effect of interpersonal group relations in the context of inclusive physical activities was analyzed. Fifteen Basque pilota players were interviewed in a group discussion format. In order to ensure inclusion, the interviewees recommended several conditions, such as, giving people with disabilities the same status, having common goals, helping each other in the group to develop the sense of belonging, making efforts to know each other out of the training sessions or providing anyone the opportunity to become a friend. The relationship between the members was often conditioned by participants' prejudices, although their punctual experiences contributed greatly to avoid them. In the future, during the design and launching of inclusive projects, it should be taken into account that long-term activities have more positive impact.

KEY WORDS: Basque pilota · Inclusion · Mental disability · The theory of interpersonal group relations.

<https://doi.org/10.26876/uztaro.106.2018.3>

Jasotze data: 2017-07-19 *Onartze data:* 2018-02-06

1. Sarrera

Mendebaldeko herrialdeetan inklusioari dagokion ideologia indarra hartzen ari da gizarteko esparru ezberdinetan, zeinak komunitate bateko pertsona guztiek parte hartzeko aukera-berdintasuna izatea dakarren (Flem eta Keller, 2010). Izan ere, pertsonen arteko ezberdintasunak naturalizat hartzen dira, haien arteko berdintasunak ezberdintasunen gainetik azpimarratuz. Hain zuzen, giro inklusibo batean, komunitate bateko partaide guztiak dira onartuak eta elkarren arteko euskarri bezala funtzionatzen dute (Reid, 2003).

Jarduera fisiko zein kirolaren arloan, jarduera inklusiboa «norbanako guztien jarduera fisikoa egiteko aukera-berdintasuna bermatzen duen filosofia eta jardunbidea da, haien adin eta trebetasunak aintzat hartu gabe» (Kasser eta Lytle, 2005). Halaber, Nazio Batuen Erakundearen 2006ko Eskubideei Buruzko Konbentzioaren 30. artikuluan (Nazio Batuak, 2006) zehazten denez, bermatu egin behar da urritasuna duten pertsonen sarrera zein parte hartzea izan ditzatela jolas-, aisialdi- eta kirol-jardueretan. Gainera, ahalik gehiena sustatu eta bultzatu behar da partaidetza kirol-jarduera orokorretan, maila guztietan, baina baita urritasuna duten pertsonentzako praktika motor zehatzak garatzeari eta jarduera horietan parte hartzeari dagokienez ere. Horretarako, gainerakoen baldintza berberetan eskain dakizkien, beharrezkoa da heziketa, prestakuntza eta baliabide egokiak bultzatzea (Dieringer eta Judge, 2015; Reina, 2014).

Oro har, urritasuna duten pertsonen jarduera fisiko eta kirolean parte hartzeko aukera gutxiago izan ohi dituzte, egoera hori areagotu egiten delarik adimen-urritasuna duten pertsonen kasuan (Stanish *et al.*, 2016). Gainera, ezohikoa da oraindik ere urritasuna duten eta ez duten pertsonak giro inklusibo batean jarduera fisiko eta kirola batera egiten ikustea, hau da, testuinguru honetan segregazioa da nagusi. Azpimarratzekoa da, beraz, oraindik inklusioa ez dela gure gizarteko egunerokotasunaren errealitate bat (Wendelborg eta Tøssebro, 2008) eta legeak dioenaren eta praktikan gertatzen denaren arteko tartea nabaria dela (Haug, 2010).

Zenbait faktorek baldintza dezakete inklusio-prozesuaren garapena (Reina, 2014), besteak beste, pertsonaren izateko erak, testuinguruak eta jarduerak berak. Alderdi horiek, gainera, eragin positiboa edo negatiboa izan dezakete esperientzia inklusiboari dagokienez. Rios-en (2009) esanetan, adibidez, alderdi sozialak oso kontuan hartu behar dira jarduera inklusiboak garatzean. Urritasun fisikoa zuten pertsonekin kirol-praktika inklusiboen esparruan egin zuten beste ikerketa batean ere aurkitu zen harreman zuzena izateak eragin positiboa izatea errazten zuela (Pérez-Tejero, Ocete-Calvo, Ortega-Vila eta Coterón, 2012), eta harreman zuzen horri esker, urritasunari buruzko hautemateak alda daitezke, sortzen diren ezagutza, sentimendu-partekatze eta esperientziagatik (Williams, 1994). Heziketa fisikoaren alorrean ere, 13 eta 18 urte bitarteko ikasleekin aztertu zen ikusmen-urritasuna zuten pertsonekin heziketa fisikoko saioetan parte hartuz lortutako harreman zuzenak eragin positiboa zuela urritasunarekiko jarrera-aldaketan (Hernández eta Audije, 2012). Norabide berean, eskola-adinean zeuden ikasleekin eginiko ikerketa batean (Aguado, Alcedo eta Arias, 2008) bi talde (kontrol-taldea eta esperimendatzeko taldea) egin ostean, esperimendatzeko taldean urritasun ezberdinak zituzten pertsonekin

harremanak izateaz gain, urritasunari buruzko informazioa eman zitzaien. Hala ondorioztatu zuten harreman zuzena bermatuz eta informazioa helaraziz jarrera-aldaketa positibo eta eraginkorrak lor daitezkeela. Ildo horri jarraiki, jarduera fisikoaren arloan talde arteko harremanak aztertzeak zeresan handia izan dezakeela ondorioztatu izan da, urritasun fisikoa duten pertsonetik jarrera aldatzeko baliagarri izan daitekeelarik (Ocete-Calvo, Pérez-Tejero eta Coterón-López, 2015). Alabaina, kirol eta jarduera fisikoaren arloan praktika inklusibo eraginkorrak sustatzen hasi badira ere (Espainiako Batzorde Paralimpikoa, 2014), urriak dira literaturan inklusioa errazten edo/eta zailtzen duten alderdiak aztertzen dituzten ikerketak, eta are gutxiago oraindik, adimen-urritasuna duten pertsonak erdigunean dituztenak. Hori bai, ikerlan bakan horiek bat datoz esatean elkar ezagutzeak erosoago sentiarazten dituela urritasunik ez duten kirolariak, horrek jokabide positiboa eta elkartrukea bermatzeko aukera sortzen baitu (Siperstein, Glick eta Carter, 2009; Sullivan eta Glidden, 2014).

Partaideen arteko harremanak nola gauzatzen diren jakiteak garrantzi berezia izan dezake inklusioa bermatzeari dagokionez. Allport-en talde arteko harremanaren hipotesia (1954) abiapuntu hartuta, talde ezberdinen arteko elkarrekintzak pertsona horiek aurreiritzi gutxiago izatera bultzatzen ditu eta, gehienetan, partaideen arteko erlazio positiboak sustatzen ditu (Beelmann eta Heinemann, 2014). Harreman positibo horiek gerta daitezten, ordea, Allportek lau baldintza behar zirela adierazi zuen: estatus-berdintasuna, helburu komunak, talde arteko kooperazioa eta autoritateen, legeen edo ohituren laguntza. Allportek estatus-berdintasuna gainerakoek gurekiko eta guk gainerakoekiko esperotakoaren (eta jasotakoaren) barruan kokatu zuen, ikuskera hori testuinguruaren barruan ulertu behar zela adieraziz. Horrez gain, harremanen bidezko aurreiritziak gutxitzeko, ezinbestekotzat jo zuen partaideek helburuetara bideratutako saiakera aktiboa egitea, kide guztien parte-hartzea beharrezkoa delarik helburua lortzeko. Premiazkotzat jo zuen, era berean, norbanakoen artean lehiatu gabe, kideen artean elkarri laguntzeko prestutasuna agertzea. Halaber, gizarteak ezberdinen artean elkarrekin erlazionatzea baimentzen duten arau eta ohiturak edukitzea ere baldintza garrantzitsutzat jo zuen.

Allportek (1954) nabarmendutako lau alderdi horiei bat gehiago erantsi zien Pettigrew-ek (1998), Cook-en (1962) ekarpenetatik abiatuta, adiskide izateko potentzialtasuna hain zuzen. Bosgarren baldintza honen bidez bestea etorkizuneko adiskide moduan ikustean jarri zuen azpimarra, alderdi hori bete gabe ezinezkotzat jotzen baitzuen talde arteko harremanak positiboak izatea. Era berean, baldintza horiez gain, beharrezkotzat jo zituen kanpoko taldeari buruzko ikasketa, portaera-aldaketa, lotura afektiboak sortzea eta talde barneko partaideak berrebaluatzea. Allporten talde arteko harremanaren hipotesiarekin bat eginik esan daiteke, egituratutako, esanguratsuak diren, maiztasun handiko, adostutako eta estatus bereko elkarrekintzek jarrera-aldaketa positibo bat ekar dezaketela (Hodge, Murata eta Kozub, 2002), kirol eta jarduera fisikoaren arloan ere testuinguru inklusibo eraginkorrak sustatzen lagunduko luketenak hain zuzen.

Taldekiddeen arteko erlazioak ulertze aldera, lagungarri izan daiteke Luhtanen eta Crocker-ek (1992) autoestimuko kolektiboaren edo sozialaren inguruan egindako

ekarpena mahaigaineratzea. Haien esanetan, autoestimua balorazio gehienak identitate pertsonalaren ebaluazio indibidualetan oinarritzen dira, norbanakoak bere burua zenbateraino estimatzen duen ikusiz. Autoestimu sozialak, ordea, talde bateko partaide izatek eratorritako autoirudiak sorrarazitako estimazioa baloratzen du. Bi balorazio horiek, pertsonala eta kolektiboa, osagarri izan beharko lukete talde arteko harremanei buruz jardutean. Literaturan aurkitutako hutsune horri erantzuteko asmoz, autoestimu kolektiboa ebaluatzeko lau alderdi proposatu zituzten: a) autoestimu kolektibo pribatuaren adierazleen bidez parte den taldea zenbaterainoko ona den azalduko da, betiere, norberaren epai pertsonaletatik abiatuta; b) autoestimu kolektibo publikoaren bidez, berriz, gainerako pertsonen taldea nola ebaluatzen dutenaren inguruko norbanako epaiak ebaluatuko ditu; c) taldekide izatearen autoestimu kolektiboaren bidez norbera taldekide ona edo txarra den baloratuko da, eta d) identitatearen garrantziari dagozkion adierazleen bidez taldekide izateak norberaren autokontzeptuan duen garrantzia ebaluatu nahi da, taldea norberaren autokontzeptuaren parte den edo ez aztertuz.

Orain artekoa kontuan izanda, ikerketa honen helburua hau da: urritasunik ez zuten pilotarien hitzetatik abiatuta talde arteko harremanek euskal pilota inklusiboaren testuinguruan sor zitaketen eragin positiboak ezagutzera, betiere, talde arteko harremanen teorien zehaztutako ezinbesteko baldintzak kontuan hartuta eta aisialdiko zein lehiaketako testuinguruak ezberdinduta. Ikerketa honek kirol-arloan inklusibitatea bermatzeko zenbait estrategia zehazteko aukera eskain dezake.

2. Metodologia

2.1. Parte-hartzaileak

Ikerketa honetan euskal pilotan ziharduten urritasunik gabeko 15 parte-hartzaile elkarrizketatu ziren. Nahita hautatutako laginketaren bidez, ezaugarri ezberdinak zituzten bi talde galdekatu ziren (ikus 1. taula): batetik, aisialdian euskal pilotako jarduera batean parte hartzen ari ziren 30 eta 60 urte bitarteko zazpi emakumez osatua (entrenatzailea barne), eta, bestetik, euskal pilotan —federatuen mailan— lehiatzen ari ziren klub bateko 16 eta 55 urte arteko zortzi gizonez osatua (klubeko ordezkaria eta entrenatzailea barne). Pilotari federatuek urtero topaketa batean parte hartu ohi zuten urritasuna duten pilotariekin batera. Aisialdiko pilotariek, aldiz, ez zuten elkarrizketatu aurretik antzeko esperientziarik bizi izan. Horrez gain, elkarrizketatu guztien artetik hiruk (bi emakumezko eta gizonezko batek) adimen-urritasuna duen gertuko familiarrekoren (alaba, anaia eta osaba) bat zuten.

1. taula. Elkarrizketatutako parte-hartzaileen ezaugarriak eta euskal pilotarekin zuten erlazioa.

Jarduera mota	Sexua	Kopurua	Adina	Euskal pilotarekiko erlazioa
Aisialdiko	Emakumea	6	30-60 urte	Pilotariak
ikastaroa	Emakumea	1	30 urte	Entrenatzailea
Lehiaketa	Gizona	6	15-17 urte	Pilotariak
federatua	Gizona	2	40 eta 55 urte	Entrenatzailea eta ordezkaria

2.2. Neurketa-tresna

Datuak jasotzeko talde-eztabaida teknika erabili zen, betiere, berezko esangura duen informazioa eskuratzeko asmoz (Domínguez eta Dávila, 2008). Halaber, elkarrizketa sustatu eta ibilbide-orria zehazte aldera, jorratu beharreko gaiak eta haien egituraketa ardaztu zituzten honako eduki-multzoen inguruko galde-sorta hau (gidoia) erabili zen abiapuntu legez: a) urritasuna eta adimen-urritasunaren inguruko ezagutza; b) euskal pilotan jarduteko arrazoiak; c) kide berri bat taldean onartzeko baldintzak, eta, d) inklusioaren inguruko iritzia. Lehenengo eduki-multzoko galde-sorta elkarrizketa girtzeko eta adimen-urritasunaren inguruan duten ezagutza aztertzeko diseinatu zen. Gainerako eduki-multzoetako galderak, berriz, Allporten lau baldintzekin (estatus-berdintasuna, helburu komunak, talde arteko kooperazioa eta autoritateen, legeen edo ohituren laguntza) eta Pettigrewren bosgarrenarekin (adiskide izateko potentzialtasuna) zein Luhtanen eta Crockerrek autoestimuko kolektiboaren ebaluatzeko alderdiekin zuzenki erlazionatuta zeuden.

2.3. Prozedura

2016ko martxoaren lehenengo eta azken astean bi talde-eztabaida saio burutu ziren, aurrez partaideekin adostutako egun eta lekuetan. Orduete eta ordu eta laurden inguruko iraupena izan zuten batez beste. Gainera, talde-elkarrizketak gauzatu aurretik partaide bakoitzari ikerketaren oinarritzko ezaugarriak azaldu zitzaizkion eta, aurrera egiteko, haien oniritzia jaso zen. Bi saioak grabatu ziren eta amaitu ostean, bakoitza transkribatu zen.

2.4. Datu-analisia

Datuen analisiari dagokionez, bi talde-eztabaidetatik eskuratutako datuak modu kualitatiboan aztertu ziren, bide induktiboa zein deduktiboa konbinatuz. Hau da, kategorizazioa gauzatzeko, jasotako bizipenetatik eratorritako gaiak identifikatzeaz gain, Allporten talde arteko harremanaren hipotesian (1954) zehaztutako ezinbesteko lau baldintzak eta Pettigrewek (1998) gaineratutako alderdia hartu ziren kontuan, hau da: a) estatus-berdintasuna, b) helburu komunak, c) kideen arteko kooperazioa, d) autoritateen eta gizartearen laguntza, eta e) adiskidetasun potentziala. Datuen azterketa- eta interpretazio-prozesua lau ikertzaileen artean gauzatu zen, etengabeko konparazio-metodoa (Hammersley eta Atkinson, 2007) erabiliz.

3. Emaitzak eta eztabaida

Talde arteko harremanek eragin positiboa zuten euskal pilotan aisialdiko ikastaroetan zein federatuta lehiaketan ziharduten pilotariengan, betiere pilotarien hitzetan. Oro har, urritasuna duten pertsonekin erlazionatzean ere antzeko eraginak emango ziratekeela pentsatzen zuten. Talde arteko erlazioetan fokua jartzea, beraz, interesgarria izan liteke proposamen inklusiboagoak lor daitezen euskal pilotan. Taldekideen arteko erlazioak nolakoak diren eta horien eraginak aztertzeko hainbat teoria egon arren (Beelmann eta Heinemann, 2014), azken hamarkadetako literaturako ekarpenek talde arteko harremanen teoria jo dute

aitorpen gehien jasotako artean (LaBelle, Booth-Butterfield eta Rittenour, 2013). Gainera, Hutchinson eta kideek (2014) adierazi zuten estigmatizatutako taldeekiko jarrera-aldaketaren teoria berritzaileak Allporten hipotesian oinarrituta zeudela, zeinak jarrera-aldaketa positiboek estigmatizatutako taldeekin harremana edo elkarrekintza edukitzea beharrezkoa zela zehazten zuen. Haatik, elkarrizketatuen ekarpenak sakonago aztertuz gero, hots, aipatu bost baldintzen arabera, askotariko aurkikuntzak eskuratu ziren.

3.1. Estatus-berdintasuna. Berdinak ote?

Elkarrizketatu gehienak bat etorri ziren adimen-urritasuna zuten pertsonak estatus berekoak kontsideratu nahi zituztela adieraztean, baina bazirela hainbat alderdi edo faktore hala ez izatea eragiten zutenak. Adibidez, gehienek esanetan beren ezjakintasuna zela medio beldurra zioten pertsona horiekin erlazionatzeari, beste estatus batekin identifikatzeraino. Hala zioen elkarrizketatu batek, «gertutik "tokatu" arte ez dugu erreakzionatzen. Ezjakintasun handia dugu haien [adimen-urritasuna dutenen] inguruan. Beldurra diogu ezezagunari. "Inkomodo" sentitzen gara batzuetan» (E1). Beldur horren jatorria bikoitza zen, batetik, haien portaera «desegokiek» mina ematea urritasuna zuten pertsoneri, eta, bestetik, urritasuna zutenen ezohiko jarreraren aurrean nola jokatu ez jakitea. Guztiz bestelakoa zen adimen-urritasuna duten pertsonekin lotura estua zuten pilotarien iritzia eta sentimendua, ez zuten zailtasunik estatus berdineko pertsona moduan onartzeko, naturaltasunez hartzen zuten harreman hori. Adimen-urritasuna duen alaba duen pilotari batek ondorengoa adierazi zuen talde-eztabaidari hasiera eman bezain laster:

Edonor etiketatzeko joera daukagunez, beraiek [adimen-urritasuna duten pertsonak] ere etiketatzen ditugu. Adimen-urritasuna duten pertsonak, guk bezala, gaitasun handiagoak eta txikiagoak dituzte [...] Zein «ezgaiak» garen besteok, ustez urritasunik ez dugunak, arratsalde batean hemen gai honen inguruan hitz egin behar izateko, ezta? (E2).

Beste pilotari batek ere, haren anaiak adimen-urritasuna du, hauxe nabarmendu zuen: «Bakoitza den bezalakoa da, etiketek ez dute batere laguntzen, nik tratu berdina ematen diot [anaiari] eta gainerakoei [adimen-urritasuna dutenei zein ez dutenei], ez daukat erreparo hori. Naturaltasunez eramaten dut kontu hau» (E5). Bati hala besteari harrigarria, eta mingarria, egiten zitzaie gizartearen gaur egun zailtasun hori eta ezberdintasun hori egin beharra. Baina, Pettigrew (1998) azpimarratu zuen moduan, norbanakoen arteko ezberdintasunek harremanek dakartzaten eraginei forma ematen diete. Pertsona ezagutzeak asko laguntzen du horretan, haren «alde onak» zein «txarrak» identifikatu eta ulertuz. Federatuek ere bat egin zuten aurreko baieztapen horrekin. Hainbat esperientzia puntual izan zituzten adimen-urritasuna zuten pilotariek eta nabarmendu zuten hasiera batean sentitzen zutena segituan alda zitekeela, «goiz batean» (G3) hain zuten.

Gainera, adierazi izan da urritasuna duten pertsonekin aurretiko esperientzia izan duten pertsonen hautemandako prestutasun-maila handiagoa izan ohi dela. Zentzu horretan, Taliaferro, Hammond eta Wyantek (2015) jarduera fisikoaren

eta kirolaren zientzietako unibertsitate-ikasketen testuinguruan egindako ikerketa batean nabarmendu zuten urritasuna duten pertsonekin esperientzia praktiko egokiak edukitzeak etorkizuneko profesionalen jarrera eta autoefikazia hobetzen zuela. Halaber, faktore sozialek inklusioaren esperientzian eragin negatibo edo positibo esanguratsua dutela jakinda (Spencer-Cavaliere eta Watkinson, 2010), garrantzitsua litzateke talde arteko erlazioak edukitze aldera guztiok ezberdinak garela onartzea.

Bide horri jarraiki, pilotari batek nabarmendu nahi izan zuen urritasuna duten pertsonak badituztela hainbat gaitasun urritasunik ez dutenekin alderatuz gero, zera zioen: «Ateraldietan oso naturalak, sanoak, dira urritasuna dutenak, “ustez” urritasunik ez dugunok beldur gehiago izaten dugu naturaltasun hori jende aurrean azaltzeko» (G7). Hori bai, elkarrizketatu baten hitzetatik abiatuz, «adimen-urritasuna dutenen artean ere ezberdintasun handiak daude, batzuek besteek baino behar handiagoak dituzte» (G4).

Adierazgarria da emakume batek kide berri bat taldekide kontsideratzearen inguruan adierazitakoa, «sartzean ez genioke eskatuko karnetik» (E3). Hau da, emakume pilotariak ez zuten adimen-urritasuna edukitzea edo ez edukitzea baldintza moduan hartzen taldekide izateko. Aldiz, Emakumea Pilotari (Gipuzkoako Euskal Pilota Federazioa, 2004) proiektuaren parte zirela ikusita, emakumea izatea ezinbestekotzat jo zuten. Estatus-berdintasunarekin bat ez zetorrena gizonezkoa izatea zen testuinguru horretan, beraz, eta ez urritasuna zuen pertsona izatea. Horrekin bat, Pettigrewen (1998) aburuz, talde arteko harremanek aurreiritziak gutxitu ditzakete ikaskuntza berriek kanpoko partaide bati buruzko ikuskera negatiboak zuzentzen dituztenean. Horrekin lotuta, ikusi zen harreman zuzenak aldaketa positiboak eragiten zituela urritasuna duten pertsonen inguruko hautemate eta jarreretan heziketa fisikoan (Aguado, Alcedo eta Arias, 2008; Hernández eta Audije, 2012) zein kirol-esparruan (Pérez-Tejero *et al.*, 2012; Williams, 1994).

Bide beretik, pilotarien arduradunetako batek ere zera zioen: «Berri bat etortzen denean gure klubera jarrera ona eta gogoia eskatzen diogu; konpromisoa ere oinarritzakoa da, entrenamenduak errespetatu, ardua minimoa eduki, eta abar» (G7). Kasu honetan ere, federatuek ez zuten inolako ezberdintasunik egin estatusari dagokionez pertsona bat beren taldean onartzeko. «Adimen-urritasuna ez da pertsona bat kirol batean parte hartzetik kanpora uzteko arrazoia» (G5), nabarmendu zuten beste gizonezko batek. Jakina da, ordea, urritasuna duten pertsonekin erlazioa izan zuten talde bateko pilotari edo entrenatzaile-arduradunen asmo onetatik haratago, lehiaketan diharduten kirol-klubak (eta berauek erregulatzen edo kudeatzen dituzten erakundeak) urrun daudela izaera inklusiboa duten jarduerak antolatu eta gauzatzetik. Izan ere, inklusioak kultura-aldaketa filosofikoa, ideologikoa, politikoa eta praktikoa behar ditu (Haug, 2010), ekitatea, burujabetza eta ahalduntzea bezalako balioak sustatuz. Hala eta guztiz ere, ezberdintasunez kontzientzia hartzea aberasgarria da urritasunik ez dutenentzat, elkartrukeen onurak denek jasotzen dituztelako eta horrek estatusen arteko ezberdintasuna murrizten laguntzen duelako, bakoitzaren gaitasunak pertsonen arteko ezberdintasunen gainetik azpimarratuz (Grandisson, Tétreault eta Freeman, 2012).

3.2. Helburuak. Mutilek lehiatu eta neskek elkarrekin gozatu. Guztiak, ongi pasatu eta giro onean jardun

Euskal pilotan jarduteko helburuei zegokienez, gizon zein emakume, guztiak bat zetozen adieraztean helburu nagusia ongi pasatzea zela. Zera zioten, adibidez, «pilotan jokatzeko dugu ondo pasatzeko, jende berria ezagutzeko» (E4); «giroak erakartzen gaitu, besteekiko erlazioak» (E5); «pilotan jokatuz gozatu nahi dugulako apuntatzen gara» (G1). Elkarrizketatu hauek Allportek (1954) adierazitakoa indartzen dute, hau da, harremanen bidez aurreiritzi negatiboak gutxitzeko beharrezkoa dela antzeko helburuak lortzera bideratutako esfortzu aktiboa gauzatzea. Badira, ordea, hainbat ñabardura pilotariek egindako ekarpenen artean. Aisialdiko zenbait pilotarik, adibidez, argi adierazi zuten oso zaila izan ohi zela herri txikietan emakumeek antolatutako jardueretan jarraitutasuna edukitzea. Partaide baten hitzetan «emakumeen taldeekin beti berdina pasatzen da, hasi hasten dira, baina dituzten obligazioengatik pixkanaka uzten joaten dira» (E6). Hori bai, emakumeek, gizonen alderatuz, gehiago indartu zuten elkarrekin giro onean jardutea edo jende berria ezagutzeko. Euskal pilotan emakumezko pilotariek elkarrekin gozatzearen sentimendu hori beste zenbait ikerketatan ere nabarmendu zuten (Fernandez-Lasa, Usabiaga eta Castellano, 2014; Fernandez-Lasa, Usabiaga, Martos-García eta Castellano, 2015).

Halaber, emakumezkoek pilotan zihardutenean markagailua ez zuten kontuan izaten, ariketetan «saltsa pixka bat» (E1) besterik ez zuten behar, partida ofizial baten seriotasunetik urrun zegoen dibertsioa hain zuzen. «Tantoak irabaztea gustatzen zaigu, baina partidak irabaztea [irabazteko lehiari jardutea] ez» (E1). Honek ere lotura zuzena du pilotako jarduerak kideekin gozatzeko espazio legez izendatu eta bizitzearekin (Fernandez-Lasa, Usabiaga eta Castellano, 2014). Emakumezkoen artean entrenamendu-saioretako jarduerak egokiak ziren ustea zen nagusi, lehiari garrantzia kentzen zioten ariketa edo jarduerak gustukoago zituztela argudiatuz. Guztiak bat zetozen entrenatzaileak egindako baieztapen honekin: «Hauei [aisialdiko emakume pilotariei] beren artean hitz egiteko beta ematen dieten ariketak gustatzen zaizkie» (E7). Saio gehienetan «teknika hobetzeko elkarri pilota ongi botatzeko egindako ariketak» (E7) proposatzen zituztela nabarmendu zuen. Sentipen horiek kontuan izanda, bakarka zein kolaborazioan burututako jarduerak gogoko zituztela esan daiteke. Etxebesteren (2012) lanean oinarrituz, errepikapenaren gozamenara bideratutako jolasak liriateke horiek guztiak. Jolas horiek taldean egitean, parte-hartzaileak elkarri lagunduz saiatzen dira helburua lortzen, elkarrekin kooperatuz.

Mutilak, aldiz, giro ona edukitzearen garrantzia azaleratu arren, lehiaketaren gozamenak erakartzen zituen, oposizio edo kolaborazio-oposizioko jarduerak hain zuzen. Adimen-urritasuna zutenekin izandako esperientziari erreferentzia egitean, ordea, ongi pasatzea irabaztearen aurretik kokatu zuten, ondorengo aipuan ikus daitekeen moduan: «Lehiakorrak gara, baina adimen-urritasuna duten kirolariek jokatzeko ere, baina kasu honetan ongi pasatzeak garrantzia handiagoa izan zuen irabazteak baino» (G4). Adierazgarria zen ikustea nola pilotari federatuek ezberdin jokatzeko zuten aurrean zituzten jokalarien ezaugarrien arabera. Batzuen esanetan,

ongi pasatzeko ezinbestekoa zen kasu horietan zuten joko-maila jaistea, nahiz eta onartu, beste kasu batzuetan zuten guztia eman behar izan zutela. Beraz, urritasuna zuten pilotariekin izandako esperientzian izandako bizipenak bat zetozen lehiatzean zituzten helburuekin. Hau da, batzuetan gehiago behartu behar zuten beren burua partida aurrera atera ahal izateko eta beste batzuetan, berriz, lasaiago jardunda ere aurrera ateratzeko aukera zuten. Ondoan zuten kideak ere (adimen-urritasuna zuen pilotaria) sentsazio berberak partekatzen zituela uste zuten, askoz ere nabarmenago adierazten zituztelarik irabaztean eta galtzean zituzten emozioak. Horren harira, hau zioen pilotari federatu batek: «Askoz gehiago emozionatzen ziren, adibidez, tanto bat irabaztean, dena ematen zuten, asko bizi zuten; eta nola emozionatzen ziren ikusteak emozionatzen ninduen ni» (G8). Taldea osatzen zuten bien asmoak berberak ziren heinean, partiduko emozio eta sentimenduak ere modu berean bizi zituzten. Enpatiaren papera garrantzitsua izan daiteke taldekideen arteko harremanetan. Vanman-en (2016) arabera, pertsonak enpatia gehiago adierazi ohi zuten gainerako partaideekiko beren taldekide moduan kategorizatzean eta talde arteko enpatia horrek, Molina, Tropp eta Goode-ren (2016) esanetan, pertsona horiekiko aurreiritziak gutxitzen zituen. Aurreko aipuarekin bat eginez, zera zioen pilotari batek:

Urritasuna duten pertsonekin jokatzeko prejuizioak kentzeko balioko liguken. Ditugun beldurrei aurre egiteko. Informazio gehiago eduki eta beraiekin disfrutatzen. [...] Beste pertsona batzuk gustura ikustea ere oso gustagarria da norberarentzat (G7).

Euskal pilotan jarduteak modu zuzenean eragiten zien partaide guztiei, emozio positiboak eta bizipen gustagarriak sortuz. Gainera, zeharkako hainbat eragin ere sortzen zizkien urritasuna ez zuten partaideei, urritasuna zuten pilotariak neurrigabe eta libreki adierazten zuten gozamen eta ilusioak kutsatzen baitzituen. Elkarrekintza horrek partaideei helburuak birformulatzen lagundu zien, hala nola ongi pasatzea lehiaren eta irabaztearen gainetik jartzearaino. Urritasunik ez zutenek, urritasuna zutenekin bizi izan zituzten lehenengo aldiz emozio eta sentimendu horiek. Finean, pilotan elkarrekin gozatzeak ekarri zien emozio ezberdin batzuk edo emozio berberak modu desberdin batean bizitzea.

3.3. Kideen arteko kooperazioa. Talde bat gara eta harro gaude

Elkarrizketatuak izan ziren bi taldeetako pilotarien izaera oso ezberdina zen. Udalak antolatutako aisialdiko ikastaroan zihardutenek astero entrenamendu-saio batean parte hartzen zuten —entrenatzaile batek gidatuta— eta asteburuetan ez zuten norgehiagokarik jokutzen. Haien arteko kooperazioa asteroko saiora mugatzen zen batik bat, nahiz eta saioz kanpoko hainbat jarduera (gidatu gabeko pilota-saioak eta lagunarteko otorduak) ere antolatu. Euskal pilota baliabide edo bitartekotzat hartzen zuten, pilotalekua elkargune zuten eta harreman horiek bestelako jarduerak gauzatzera bideratzen zituzten. Testuinguru honetan, besteekiko harremana ahalik eta gehien zaintzen zuten, besteengandik ere hoberena espero zutelarik. Urritasuna duten pertsonetik ere kooperazio-maila berbera esperoko zuketen, honela zioen, adibidez, pilotarietako batek: «Adimen-urritasuna daukanarengandik

beste edozein etorrira ere jasoko genukeena jasoko genuke, giro ona, umore ona, saltsa... Barreterapia» (E6). Taldean egoteak beren identitatea eraikitzen laguntzen zien, elkarri lagunduz eta taldean txertatzeko estrategiak erabiliz. Euskal pilotako entrenamenduak baditu hainbat ezaugarri talde-izaera hori indartzen dutenak, honela zioen jokalarari honek:

[Euskal pilotako saioa] taldean izan ohi da, ez korrika egitean bezala. Hitz egiteko beta ematen digu. Ez dut batere disfrutatzen korrika bakarrik aritzean, pilotan berriz ez dut obligaziorik sentitzen. Orduz kanpo ere harremanak mantentzen ditugu. [...] Desiratzen etortzen naiz pilotara. Beste kirol batzuek ez ninduten honek bezainbeste «engantxatu» (E2).

Aisialdian ziharduten partaideek elkarri laguntzeko joera zuten, eta horrek elkar baloratzeko sentimenduak sorrarazten zizkien. Taldekideen arteko autoestimua paper garrantzitsua joka dezake bakoitzaren identitate sozialaren sentsazio positiboak sortzen. Luhtanen eta Crockerren (1992) sailkapena aztertutik testuingurura egokituz, emakume hauek gustura sentitu ziren euskal pilotan ziharduten taldean (autoestimu kolektibo pribatua) eta gainerako partaideek ere modu positiboan bizi zutelara uste zuten (autoestimu kolektibo publikoa); era berean, taldekide onak zirelakoan zeuden (taldekide izatearen autoestimu kolektiboa) eta talde hori beren autokontzeptuaren parte zela pentsatzen zuten (identitatearen garrantzia). Autoestimu kolektiboaren beste adibide bat hau izan liteke:

Adin ezberdinetako pertsonak juntatzen gara, talde-giroan, ongi pasatzeko asmoarekin. Hizkuntza berbera hitz egiten dugu, nahi berberak ditugu. Elkarrekin oso ongi konpontzen gara. Pertsonalitate errazekoak gara. [...] Pilotan jokatzetik ezagutzen dugu elkar eta [ohiko entrenamendu-saioaz gain] beste saio baterako geratzen gara, bertan ere pilotan jolasten dugularik (E1).

Emakume pilotarien kasuan nabarmendu da taldean jardutea lehentasun bilakatu ohi zela taldekide sentitzean, elkarri laguntzeko joera zutelarik (Fernandez-Lasa *et al.*, 2015). Gizonezko pilotari federatuen kooperazioan ere antzeko eragina zuen autoestimu kolektiboak. Baina horiek egitura konplexuago bateko partaideak ziren, euskal pilotako klub bateko kideak hain zuzen. Asteazkenean bi entrenamendutan elkartzen ziren eta asteburuetan, etxean edo kanpoan jokatzearan arabera, beren pilotako bikotearekin edo beste bikote batzuekin elkartzen ziren. Lehiak eta lehiaketa-sistemak erabat aldatzen zuen, ordea, federatuen mailan jokatzeko zuten pilotari horien arteko kooperazioa. Batetik, klub barruan bikoteak osatzeko, hein handi batean, elkarren aurka lehiatzen ziren. Pilotarien joko-mailak (eta abileziak) garrantzi handia hartzen zuen bikoteak osatzeko prozesuan. Hau da, jokalarari bakoitzak, bere joko-maila zena zela ere, joko-maila ona zuen kide batekin jokatu nahi zuen, horrek partida gehiago irabaztera eramango baitzuten. Horren harira, zera zioen federatuen entrenatzaile batek: «Joko-maila arazoa izan ohi da batzuetan, diferentzia asko daudelako pilotarien artean, baina moldatzen gara, ez da arazo larria» (G7). Hezitzaileen zeregina garrantzitsua zen zentzu horretan, pilotari gazteen arteko gatazkak ez sortzea edo modu egokian kudeatzea izan ohi zutelarik haien zereginetako bat. Bestetik, asteburu beste klub bateko bikote baten aurka jokatu ohi zuten. Kasu honetan erlazioak antagonikoagoak izan ohi ziren, bi

aldean helburua irabaztea baitzen, eta partida batean bakarra atera ohi da garaile. Hala ere, pilotari batek zioen moduan:

Euskal pilota ez da futbola bezalako kirola, beste giro bat sortzen da taldekideen artean, sanoagoa, harremana gertuagokoa da, baita aurkako klubetako pilotariekin ere. [...] Talde bat osatzen dugu, nahiko sendoa gainera. Sartzen dena geratu egiten da. Denok parte hartzen dugu antolatzen. Egia esan, kuadrilla giroa sortu dugu (G4).

Halaber, gizonezkoek adimen-urritasuna duten pertsonekin berdin jokatu zuketela uste zuten. «Taldean sartzen eta taldean ardurak» (G8) hartzen lagunduko zieketen, hori baitzen, beren ustetan, klubeko partaide bilakatzeko bidea. Lehiaketako zein aisialdiko pilotariet egindako entrenamenduak erregularitasunez eta jarraitutasunez egiteak inklusio soziala hobetzea ekar ziezaiekeen, autokontzeptu eta autoestimuan maila garrantzitsuak erdietsiz partaide guztiek. Era berean, ikastaro/entrenamendu saio horiek dituzten onurak ere barneratu eta onartzera bidera zitzakeen, honek guztiak laguntasun-harremanak eraikitzeo aukerak eskain diezazkiekeelako jardule guztiei, hainbat ikerketatan azpimarratu moduan (Bota, Teodorescu eta erb noiu, 2014; Grandisson, Tétreault eta Freeman, 2012). Inklusio sozial hori, gainera, abilezia motor, sozial eta kognitiboekin zuzenean harremanetan dago, adimen-urritasuna duten kirolariek beren maila are gehiago hobetzeko aukera baitute urritasunik ez duten kirolariekin talde berean aritzean, lehenengoek sarri askotan beren mugak gorago jartzeko aukera izaten baitute kideen maila eta trebetasuna erreferentziatzen hartuta (Grandisson, Tétreault eta Freeman, 2012). Finean, urritasunik ez dutenek ere onurak erdietsiko lituzkete, besteak beste, ezberdintasunen inguruko kontzientzia gehituz. Gainera, elkartrukea zenbat eta jarraitutasun handiagoz eman, laguntasun-harremana garatu eta denboran iraupen luzeagoa izan dezan errazagoa da, kideen onarpen eta inklusio sozialari norbanakoen trebetasun motorrei baino arreta handiagoa eskainiz (Siperstein, Glick eta Carter, 2009).

3.4. Autoritateen eta gizartearen laguntza. Aurreiritziei aurre egiteko, (in) formazioa

Gizartearen arau eta ohiturek asko lagun dezakete jarrera ezegokiak arbuiatzen eta hori baliagarria izan liteke taldekideen arteko harremanek onarpen handiagoa izateko zein eragin positiboagoak edukitzeko (Pettigrew, 1998). Azpimarratzekoa da, ordea, partaide gehienek beren buruaz zein gizarteaz egiten zuten (auto) kritika. Zenbait pilotarik gizartearen etiketatzeo joera arbuiatu zuten, horrek ezer onik ez dakarrela nabarmenduz. Aurreiritziak aurreiritzi, ezberdinak izateari zaion beldurraren gainetik, denok dugula pertsonalitate ezberdina nabarmendu zuen pilotari federatu batek:

Urritasuna ez dutenak ere oso ezberdinak dira, eta elkarrekin konpontzera iristen dira. Kasu honetan prozesua zailtzen duten alderdi «ilunak» [pilotarientzako ezezagunak diren jokabide eta jarrerak] egon arren, azkenean bide berberari jarraituko lioke. Urritasuna ez dutenen artean ere batzuk jatorrak dira eta besteak ez hainbeste, batzuk alaiagoak eta besteak ez hainbeste, batzuk hiztunagoak eta besteak ez hainbeste (G8).

Bakoitza den bezalakoa agertzearen garrantzia nabarmendu nahi izan zuten hainbat partaidek, eta pertsona oro den bezalakoa onartzearen garrantzia. Edozein pertsonarekin erlazionatzean zerotik abiatzearen antzeko espresioak azpimarragarriak iruditzen zitzaizkien, pertsona berri batekin erlazionatzean haren izateko modua ezagutzen saiatzea, aurrez itxuragatik edo inork esandakoaren araberrako epairik egin gabe. Pilotari federatuek hainbat esperientzia izan zituztenez, beharrezkotzat jotzen zuten urritasuna duten pertsonekin erlazionatzean pertsona horien ezaugarrien inguruan gehiago jakitea. Haien esanetan, erlazioa naturala izateko asko eskertuko zuketuen topaketa egin aurretik (in)formazioaren bat jasotzea, horrek hainbat jarrera ulertzen eta nola jokatu behar zuten jakiten asko lagunduko ziela uste baitzuten. Hasierako jarrerak (berenak) ez zituzten naturaltzat hartzen, nola jokatu ez jakitea oztopo izaki. Pilotarien sentimenduekin bat, Pérez-Tejero eta kideek (2012) oinarritzat jo zuten aurreiritziei aurre egiteko eta jarrera modu positiboan aldatzeko harreman zuzena sustatuko zuten testuinguruak proposatzea. Elkar ezagutzuz eta partekatuz lortzen da erlazionatzeko (in)formaziorik aberatsena. Horren harira, LaBelle eta kideek (2013) azpimarratu zuten urritasuna duten pertsonetik jarrera negatiboak (in)formazio falta edo ezegokia izatearekin lotura izan ohi zuela. Aguado, Alcedo eta Arias-ek (2008) ere adierazi zuten informazioa emateak kontaktua izateaz gain urritasunarekiko iritzia aldatzen zuela. Beraz, urritasuna duten pertsonen inguruko formakuntzak eta harremanetan egoteak pertsona horien inguruan eraikitako aurreiritzietan eragin positiboa du, baita jarrera eta urritasuna duten pertsonen beharrekiko enpatian ere (La Belle *et al.*, 2013). Ildo horretan, Rios-ek (2009) ere ondorioztatu zuen askotan ezezagutza eta informazio falta izaten zela inklusiorako oztopoetako bat. Hori dela-eta, hautemate-aldaketa gertatzeko zuzeneko harremanak sustatzea oso garrantzitsua da, aldaketa positiboa gertatzen baita urritasunik ez duten jarduleengan (Beelman eta Heinemann, 2014; Hernández eta Audije, 2012; Siperstein, Glick eta Carter, 2009; Sullivan eta Glidden, 2014; Williams, 1994).

Gizarteko ohituren aldaketa sustatu eta bermatzeko ezinbestekoa litzateke jarduera fisikoaren eta kirolaren arloko profesionalen hezitzaileek, ikasleengan izan dezaketen eragina kontuan hartuta, etorkizuneko profesionalen sinesmen eta ideologiaren inguruan hausnarketarako espazioak sortzea, modu horretan inklusioa eta urritasunaren nozio tradizional eta dualistikoa gainditzeko (Mordal-Moen, 2011). Are eta gehiago arlo hori jorratzen duten fakultateen eraginkortasuna zalantzan jarri denean (Hay eta Hunter, 2014), bertako ikasleek heziketa fisiko inklusiboa bermatzeko prestaketa-maila eskasa eskaintzen zutela eta programotan metodologia eta heziketa fisikoaren inguruko ideia tradizionalak transmititzen zirela kritikatu baitute (Mordal Moen, 2011). Hori horrela izanda, unibertsitateko programetan, urritasunari eta inklusioari dagozkien ezagutza eta esperientzia praktikoa uztartzea gomendatzen da, besteak beste.

Ezin ahatz dezakegu, ordea, jarduera fisikoaren eta kirolaren esparruan inklusioa lortzeko bidean ezinbestekoa dela esparruan parte hartzen duten eragile guztiak elkarlanean eta norabide berean aritzea, bai kirolariak eta adimen-urritasuna dutenen familiartekoak, baita komunitate osoa ere (Grandisson, Tétreault eta Freeman, 2012). Eragile horien artean leudeke, besteak beste, osasun publikoko

arduradunak, errehabilitazioko profesionalak, kirol-elkarte integratuak, Special Olympics programak, eskolak, komunitateak eta komunikabideak. Hori hala izan ezean, zailagoa litzateke erabateko inklusioa erdiestea. Gainera, horiek guztiek mezu bera eman beharko lukete, adimen-urritasuna dutenak kirol-arloan txertatzeak pertsona oro aberasten duela azpimarratuz. Haatik, giro lagungarri eta ulerkorra funtsezkoa da jarduerak ahalik eta inklusiboenak izan daitezen.

Talde arteko harremanek aurreiritziak gutxitzen laguntzen dutela jakinda, etorkizunera begira interesgarria izan liteke ikerketa honen bidez eskuratu diren emaitzak arrazoituta ekintzaren teoriaren ikuspegitik eratorritakoekin aztertzea, hau da, jokabide planifikatuaren teoriatik (Planned Behaviour Theory) eskuratutakoekin. Ajzen-en (1991) ekarpenei jarraiki, euskal pilotan dihardutenen ekintzak dituzten usteen edo jakintzaren arabekoak izango dira. Hau da, ekintza bat egiteko momentuan, ingurunean dagoen egoerari buruz uste denaren edo jakiten denaren arabera jokabide bat edo beste bat izango dute. Ikuspegi hau garatzeak urritasunari buruzko ezjakintasanari edo informazio faltari aurre egiten lagun dezake, gabezia hori baita elkarrekin erlazionatzeko oztopoa (Ríos, 2009). Era berean, erabilgarria izan daiteke Shaver-ek (1987) urritasuna dutenekiko jarrerak positiboki aldatzeko proposatutako honako lau estrategia hauei erreparatzea: informazioa, harreman zuzena, konbentzitzea eta bizipenen esperientzia.

3.5. Adiskidetasun potentziala. Pausorik pauso, bidea eginez

Euskal pilota parte-hartzaileen artean adiskidetasuna sortzeko kirol egokitzat jo zuten elkarrizketatutako partaideek. Taldekideek elkar laguntzeko, errespetatzeko eta baloratzeko zuten joerak adiskide izateko aukera handitzen zuen. Testuinguru batzuetan batzuek besteengandik ikasteko aukerak beste taldearekiko joerak edo aurreiritziak gutxitzeko balio dezakeela adierazi zuen Cookek (1962). Ekarpene hori interesgarria izan daiteke euskal pilotaren inguruko testuinguru honetan, urritasuna dutenek ez dutenen ezagutza areagotu baitezakete, eta alderantziz. Gizonezko pilotari federatuek elkarrizketa gauzatu aurretik ere bizi izan zituzten hainbat esperientzia urritasuna zuten pilotariekin. Topaketa horietatik bizipen positiboak eskuratzeko aukera paregabea lor zezaketela iruditzen zitzaizkien, adimen-urritasuna zutenen naturaltasuna (emozioei zegokienez) nabarmenduz, adibidez. Pilotari batek adierazitako esaldi honek ongi laburbiltzen du haien sentimendua: «Ezagutu ondoren, beldurra galtzen diozu eta zer edo zer onaren iturri bilakatzen dira, orain, bilatu egiten ditut» (G2). Zentzu horretan, jakina da taldekideen arteko harremana gauzatzen laguntzen duten alderdirik garrantzitsuenak afektiboak izan ohi direla (Pettigrew, Tropp, Wagner eta Christ, 2011) eta epe luzera eta jarraitutasunez eginiko jarduerak onuragarriagoak izan ohi dira (Pettigrew, 1998; Siperstein, Glick eta Carter, 2009).

Allportek (1954) proposatutako baldintzak kideen arteko harremanak errazteko baliagarri badira ere, Pettigrew eta Tropp-ek (2006) egindako meta-analisiaren bidez ondorioztatu zuten bere horretan ez direla nahikoa aurreiritziak gutxitzeko edo ekiditeko. Pilotariak azpimarra jarri zuten urritasuna ez zuten pertsonekin gehiago erlazionatzen zirenean aurreiritziak gutxitzeko baliagarri zirela, baina epe luzera

adiskide izateko hobeto ezagutu beharko zituzketela, taldera etor zitekeen beste edozein pertsonarekin sentituko zuketzen moduan. Horren harira, aurreiritziak eta estereotipoak gutxitzeko Rothbart eta Johnek (1985) harremani dagokien hipotesian hainbat irizpide bete behar direla zioten: a) talde gutxituko partaideen portaera ez dator bat haien estereotipoarekin; b) talde ezberdinen arteko erlazioak maiz eta testuinguru ezberdinetan gertatu behar dira, eta, c) talde gutxituko partaideak beren kultur taldekotzat hauteman behar dituzte. Adiskide izateko aukerak handiak zirela pilotari guztien ahotik entzun arren, aipatu irizpide horiek eragin zuzena izan dezakete erlazio horiek egonkortzean. Gizonezko elkarrizketatuek oso topaketa gutxitan parte hartu zuten urritasunak zituzten pertsonekin batera, eta aisialdiko ikastaroan ziharduten emakumeek, berriz, inoiz ere ez. Haien esanak, beraz, asmo edo nahien inguruan sortutakoak ziren. Era berean, ez ziren betetzen aipatu irizpideetako batzuk, maiztasunari eta askotariko testuinguruetan erlazionatzeari edo estereotipoei dagozkienak kasu. Halaber, talde ezberdinen arteko erlazioak nolakoak izan daitezkeen aztertzeko beharra nabarmendu zen, jakina baita erlazio moten eraginkortasuna oinarritzkoa dela aurreiritziak gutxitzeko (Kenworthy, Turner, Hewstone eta Voci, 2005).

Horrela, pilotari gehienek adierazi zuten urritasuna ez zutenekin erlazionatzeak, zituzten beldurrengatik edo informazio gabeziagatik, hasieran ezinegona (antsietatea) sortuko ziekeela. Nahiz eta asmo irmoak izan hasierako egoera horri aurre egin eta «harremanak normaltzeko» (E1). Pettigrew eta Troppen (2006) esanetan, talde arteko adiskidetasuna da adierazlerik egokienetakoa talde arteko jarrerak hobetzeko, betiere beste taldeak sor ditzakeen antsietate eta mehatxuak gutxitzeko. Afektibitatearen beste zenbait faktorek ere eragina izan dezakete talde arteko elkarrekintzan, horien artean garrantzia handia dutelarik enpatiak edo bestearen lekuan jartzeak (Galinsky eta Moskowitz, 2000).

Birkategorizatzeako modeloari erreparatuz gero, Gaertner eta kideek (1989) gomendatu zuten talde arteko harremanak eraginkorrak izan zitezkeen beharrezkoa zela «gu» eta «besteak» ezberdintzetik «gu» kategoriara pasatzea. Hau da, ezberdintasunak alde batera utzi eta guztiak zaku berean zeudela sentitzearen beharra azaleratu zuten. Estatus-berdintasunari dagokion atalean adierazi moduan, nahietatik haratago, oraindik talde ezberdinetan sailkatzeko joera nabaria zen pilotarien artean eta, oro har, gizartean ere hala da. Talde arteko harremanak ikertzea beharrezkoa izan liteke, hortaz, horiek hobetzen dituzten adierazleak ezagutzeko baliagarri diren heinean, baita komunitate ezberdinen arteko segregazio-maila altua denean ere (Tausch, Kenworthy eta Hewstone, 2004). Are gehiago, beste taldekideekiko jarrerak hobetzeaz gain, talde arteko harreman positiboek talde minoritarioekin erlazioan gertatu ohi diren berdintasun-gabeziei eragiten diete, eta berdintasunerako aldaketa soziala gertatzeko lagungarri izan daitezke. Baina batzuetan ez dira berdin ikusiak izaten talde minoritarioko partaideen aldetik, orientazio erlijiosoei dagokienez minoritarioak diren taldeetan nabarmendu zuten moduan (Saguy, Tausch, Dovidio eta Pratto, 2009).

Ikerketa honen ondorioei heldu aurretik, beharrezkoa da nabarmentzea, oro har, gelakideenganako hautematearen aldaketa neurtzen zuten hainbat galdetegi (Suriá,

2011) zein urritasun ezberdinak zituzten pertsonen arteko esperientziak esploratu dituzten zenbait ikerketa egin arren (Segura, Martínez-Ferrer, Guerra eta Barnet, 2013; Espainiako Batzorde Paralimpikoa, 2014), literatura zientifikoan ez dela aurkitu jarduera fisikoaren eta kirolaren alorrean parte-hartze inklusiboa lortzeko adimen-urritasuna duten jarduleen iritzia elkarriketa bitartez esploratzen duen ikerlanik. Lan honetan urritasuna dutenen ahotsak kontuan hartu ez badira ere, azpimarratzekoa da urritasuna duten jarduleen ahotsak entzutea oso aberasgarri suertatuko litzatekeela inklusioa aztergai den kirol eta jarduera fisikoko testuinguruetan (Spencer-Cavaliere eta Watkinson, 2010). Ikerketa honetatik eratorritako emaitzak beste ikuspegi batetik eskuratutakoekin alderatzeko bidea emango luke hain zuzen ere, modu horretan errealtatearen kontakizun aberatsagoa lortuz.

4. Ondorioak

Talde arteko harremanaren teoria abiapuntutzat hartuta, erlazio arrakastatsuak izateko ezinbestekotzat jo ohi diren hainbat alderdi aztertu ziren ikerketa honetan. Galdekatutako pilotarien aurreiritziek eragina izan zuten adimen-urritasuna duten pertsonen estatusa eta haiena alderatzean, nahiz eta guztiek asmo ona agertu aurreiritzi negatibo horiek alde batera utzi eta elkarrekin euskal pilotaz gozatzeko. Aurretik izandako portaerek zein esperientziek eragina zuten harreman berriak sortzean. Euskal pilotan jarduteko helburuak oztupo bilaka daitezke inklusibitatea bere osotasunean emateko, baina ez dira baldintzatzaile garrantzitsuenak. Erlazioak egonkortu eta taldekide sentitzeko topaketa puntualak baino areago, epe luzerako proposamen inklusiboak diseinatu eta garatu beharko lirateke. Asmo edo nahietatik haratago, ordea, lagungarri izango litzateke epe luzerako jarduera egonkorra gauzatu eta esperientzia horiek partaideengan sorraraziko lituzketen eraginak nolakoak diren aztertzea.

Halaber, talde minoritarioen (kasu honetan, adimen-urritasuna dutenak) eta gainerakoen arteko harremanek eragin positiboak izan ditzakete, bereziki aurreiritzien, antsietatearen eta mehatxuen gutxitzean, beldurrak uxatzean edo guztiak talde bereko sentitzean. Bide horretan, urritasuna ez dutenen prestutasuna abiapuntu egokia da erlazio gehiago eduki eta proposamen inklusiboagoak gauzatzeko. Etorkizunera begira, eta ikerketa honen emaitzetatik abiatuta, euskal pilotako entrenamendu edo ikastaro inklusiboagoak antolatu nahi izanez gero, gomendagarria litzateke ondorengo proposamenak kontuan izatea:

- Entrenamendu-saioak hasi aurretik edo lehenengo saioetan elkar ezagutzeko jarduerak proposatu. Beharrezkoa da lehen egunetan elkarren berri izatea. Elkarren inguruko informazioa edukitzeak partaideen beldurrak uxatzen lagunduko du.
- Argi azaldu beharko litzateke partaideei saio/ariketa horiekin lortu nahi diren helburuak zeintzuk diren. Saioak hasi aurretik adierazi zertan izena eman duten, entrenamenduaren (lehia) edo ikastaroaren (aisia) arteko ezberdintasuna agerian utziz. Behin jardueren xedea azalduta, irabazteko asmoa dutenen artean (pilotari federatuen izaera) oposizio edo kolaborazio-oposizioko memoriadun joko-egoerak zein partidak maizago proposatu.

Elkarrekin ongi pasatu nahi dutenen kasuan, berriz (aisialdiko pilotarien izaera), memoria gabeko partidak eta, bereziki, kooperazioan oinarritzen direnak gauzatu. Gogoan izan, ordea, euskal pilotan izena ematen duten guztiei «saltsa» pixka bat duten ariketak gustatzen zaizkiela.

- Taldekideen arteko harremanak sustatzen dituzten ariketak indartu, horrek aurreiritziak gutxitzen lagunduko baitu. Kooperatzeko erronkak oso interesgarri suerta daitezke batak besteari elkarri lagunduz helburu berbera lortu eta, beraz, jo-puntua harremanetan jartzeko.
- Ariketak diseinatu aurretik, ongi aztertu saioetan parte hartu nahi duten partaideen joko-ezaugarriak, inor ez dadin baztertua sentitu. Proposatzen diren ariketa guztietan partaideek parte hartzeko aukera izan behar dute, bakoitzak bere abilezien arabera. Kirol-jarduere (lehiaketa) testuinguruan lehia-ariketak proposatzean, ahalik eta gehien egokitu partaideen beharretara, eta aisialdiko jarduera moduan eskaintzean, berriz, partaideen joko-ezaugarrien araberako ariketak sortu.
- Saiotetan zein saioetatik at, talde-izaera indartu, kideen arteko kooperazioa edo elkarri laguntzea bultzatuz. Taldekide guztiak ikastaroaren edo entrenamenduaren eguneroko dinamikak eskatzen dituen zereginetan inplikatzeko lagungarria da taldeko partaide sentitzeko. Zeregin horiek oso txikiak izanagatik ere (pilotalekuaren zorua garbitu, markagailuan lagundu, hasiberri bati ariketa batzuetan nola egin behar duen esan, aldagelak ireki edo itxi, eta abar), talde-identitatea sortzen lagun dezakete.

5. Erreferentziak

- Aguado, A.L.; Alcedo, M.A. eta Arias, B. (2008): «Cambio de actitudes hacia la discapacidad con escolares de primaria», *Psicothema*, **20**(4), 697-704.
- Ajzen, I. (1991): «The theory of planned behavior», *Organizational Behavior and Human Decision Processes*, **50**, 179-211, <[http://doi.org/10.1016/0749-5978\(91\)90020-T](http://doi.org/10.1016/0749-5978(91)90020-T)>.
- Allport, G.W. (1954): *The Nature of Prejudice*, Addison Wesley, Cambridge, MA.
- Beelmann, A. eta Heinemann, K.S. (2014): «Preventing prejudice and improving intergroup attitudes: A meta-analysis of child and adolescent training programs», *Journal of Applied Developmental Psychology*, **35**(1), 10-24, doi: 10.1016/j.appdev.2013.11.002.
- Bota, A.; Teodorescu, S. eta Erb noiu, S. (2014): «Unified Sports – a Social Inclusion Factor in School Communities for Young People with Intellectual Disabilities», *Procedia – Social and Behavioral Sciences*, **117**, 21-26.
- Cook, S.W. (1962): «The systematic analysis of socially significant events: a strategy for social research», *Journal of Social Issues*, **18**, 66-84.
- Dieringer, S.T. eta Judge, L.W. (2015): «Inclusion in Extracurricular Sport: A How-To Guide for Implementation Strategies», *The Physical Educator*, **72**, 87-101.
- Domínguez, M. eta Dávila, A. (2008): «La práctica conversacional del grupo de discusión: jóvenes, ciudadanías y nuevos derechos», in L. Gordo eta A. Serrano, *Estrategias y prácticas cualitativas de investigación social*, Pearson-Prentice Hall, Madrid, 97-125.

- Espainiako Batzorde Paralinpikoa (2014): *Experiencias de buenas prácticas de inclusión. La inclusión en la actividad física y deportiva*, Paidotribo, Madrid.
- Etxebeste, J. (2012): *Á Cloche-Pied. Les Jeux Sportifs Traditionnels et la socialisation des Enfants Basques*, Editions Universitaires Européennes, Sarrebruck.
- Fernandez-Lasa, U.; Usabiaga, O. eta Castellano, J. (2014): «Emakume pilotariak: gure taldea, gure ordua», *Uztaro*, **93**, 5-16.
- Fernandez-Lasa, U. et al. (2015): «Creating and maintaining social networks: women's participation in Basque pilota», *International Journal of Sport Science*, **40**(2), 129-144.
- Flem, A. eta Keller, C. (2010): «Inclusion in Norway: a study of ideology in practice», *European Journal of Special Needs Education*, **15**(2), 188-205.
- Gaertner, S.L. et al. (1989): «Reducing intergroup bias: The benefits of recategorization», *Journal of Personality and Social Psychology*, **57**, 239-249.
- Galinsky, A.D. eta Moskowitz, G.B. (2000): «Perspective-taking: decreasing stereotype expression, stereotype accessibility and ingroup favouritism», *Journal of Personality and Social Psychology*, **78**, 708-724.
- Gipuzkoako Euskal Pilota Federazioa (2004): *Emakumea Pilotari*, <<http://gipuzkoapilota.eus/pub/EmP.asp?idioma=eu>> (Kontsulta: 2017-03-05).
- Grandisson, M.; Tétrault, S. eta Freeman, A.R. (2012): «Enabling Integration in Sports for Adolescents with Intellectual Disabilities», *Journal of Applied Research in Intellectual Disabilities*, **25**, 2.017-230.
- Hammersley, M. eta Atkinson, P. (2007): *Etnografía. Métodos de investigación*, Paidós Ibérica, Bartzelona.
- Haug, P. (2010): «Approaches to empirical research on inclusive education», *Scandinavian Journal of Disability Research*, **12**(3), 199-209.
- Hay, P.J. eta Hunter, L. (2014): «“Please, Mr Hay, what are my poss(abilities)?”: legitimation of ability through physical education practices», *Sport, Education and Society*, **11**(3), 293-310.
- Hernández, G. eta Audije, B. (2012): «Estudio sobre el cambio de actitudes hacia la discapacidad en clases de actividad física. Study on changing attitudes towards disability in physical activity clases. Estudo sobre a mudança de atitudes en deficientes nas aulas de atividade física», *Cuadernos de psicología del deporte*, **123**(9), 101-108.
- Hodge, S.R.; Murata, N.M. eta Kozub, F.M. (2002): «Physical Educators' Judgments about inclusion: a new instrument for pre-service teachers», *Adapted Physical Activity Quarterly*, **19**, 435-452.
- Hutchinson, L.M. et al. (2014): «Who's challenging who? Changing attitudes towards those whose behaviour challenges», *Journal of Intellectual Disability Research*, **58**(2), 99-109, doi: 10.1111/j.1365-2788.2012.01630.x.
- Kasser S.L. eta Lytle, R.K. (2005): *Inclusive physical activity. A lifetime of opportunities*, Human Kinetics, Champaign, IL.
- Kenworthy, J.; Turner, R.N.; Hewstone, M. eta Voci, A. (2005): «Intergroup contact: When does it work, and why?», in J. Dovidio, P. Glick eta L. Rudman (ed.), *On the nature of prejudice: Fifty years after Allport*, Blackwell, Malden, MA.
- LaBelle, S.; Booth-Butterfield, M. eta Rittenour, C. E. (2013): «Attitudes toward profoundly hearing impaired and deaf individuals: Links with intergroup anxiety, social dominance orientation, and contact», *Western Journal of Communication*, **77**(4), 489-506, doi: 10.1080/10570314.2013.779017.
- Luhtanen, R. eta Crocker, J. (1992): «A collective self-esteem scale: Self-evaluation of one's social identity», *Personality and Social Psychology Bulletin*, **18**(3), 302-318.

- Molina, L.E.; Tropp, L. R. eta Goode, C. (2016): «Reflections on prejudice and intergroup relations», *Current Opinion in Psychology*, **11**, 120-124.
- Mordal-Moen, K. (2011): «“Shaking or stirring”? A case-study of physical education teacher education in Norway», Norwegian School of Sport Science, Norvegia [doktoregotesia].
- Nazio Batuak (2006): *Convención sobre los derechos de las personas con discapacidad*, <<http://www.un.org/spanish/disabilities/default.asp?navid=12&pid=497>> (Kontsulta: 2017-05-03).
- Ocete-Calvo, C.; Pérez-Tejero, J. eta Coterón-López, J. (2015): «Propuesta de un programa de intervención educativa para facilitar la inclusión de alumnos con discapacidad en Educación Física», *Retos*, **27**, 140-145.
- Pérez-Tejero, J. et al. (2012): «Diseño y aplicación de un programa de intervención de práctica deportiva inclusiva y su efecto sobre la actitud hacia la discapacidad: El Campus Inclusivo de Baloncesto», *RICYDE*, **29**(8), 258-271.
- Pettigrew, T.F. (1998): «Intergroup contact theory», *Annual Review of Psychology*, **49**(1), 65.
- Pettigrew, T.F. eta Tropp, L.R. (2006): «A meta-analytic test of intergroup contact theory», *Journal of Personality and Social Psychology*, **90**(5), 751-783, doi:10.1037/0022-3514.90.5.751.
- Pettigrew, T.F. et al. (2011): «Recent advances in intergroup contact theory», *International Journal of Intercultural Relations*, **35**(3), 271-280.
- Reid, G. (2003): «Defining adapted physical activity», in R.D. Steadward, G.D. Wheeler eta E.J. Watkinson (ed.), *Adapted physical activity*, University of Alberta Press, Edmonton, 11-25.
- Reina, R. (2014): «Inclusión en deporte adaptado: dos caras de una misma moneda», *Psychology, Society & Education*, **6**(1), 55-67.
- Ríos, M. (2009): «La inclusión en el área de Educación Física en España. Análisis de las barreras para la participación y aprendizaje», *Ágora para la Educación Física y el Deporte*, **9**, 83-114.
- Saguy T. et al. (2009): «The irony of harmony: Intergroup contact can produce false expectations for equality», *Psychological Science*, **20**, 114-121.
- Segura, J. et al. (2013): «Creencias sobre la inclusión social y el deporte adaptado de deportistas, técnicos y gestores de federaciones deportivas de deportes para personas con discapacidad», *Revista Iberoamericana de Psicología del Ejercicio y el Deporte*, **8**(1), 120-144, <<http://doi.org/10.1177/10442073060170030401>>.
- Shaver, J. (1987): *The modification of attitudes toward persons with handicaps: a comprehensive integrative review of research*, Final Report, Utah State University, Logan Bureau of Educational Research.
- Siperstein, G.N.; Glick, G.C. eta Carter, R.C. (2009): «Social Inclusion of Children with Intellectual Disabilities in a Recreational Setting», *Intellectual and Developmental Disabilities*, **47**(2), 97-107.
- Spencer-Cavaliere, N. eta Watkinson, E.J. (2010): «Inclusion Understood From the Perspectives of Children With Disability», *Adapted Physical Activity Quarterly*, **27**, 275-293.
- Stanish, H.I. et al. (2016): «Physical Activity Enjoyment, Perceived Barriers, and Beliefs among Adolescents with and without Intellectual Disabilities», *Journal of Physical Activity and Health*, **13**, 102-110.
- Sullivan, E. eta Glidden, L.M. (2014): «Changing Attitudes Toward Disabilities Through Unified Sports», *Intellectual and Developmental Disabilities*, **52**(5), 367-378.
- Suriá, R. (2011): «Análisis comparativo sobre las actitudes de los estudiantes hacia sus compañeros con discapacidad», *Electronic Journal of Research in Educational Psychology*, **9**(1), 197-216.

- Svendby, E.B. eta Dowling, F. (2012): «Negotiating the discursive spaces of inclusive education: narratives of experience from contemporary Physical Education», *Scandinavian Journal of Disability Research*, **15**(4), 361-378.
- Taliaferro, A.R.; Hammond, L. eta Wyant, K. (2015): «Preservice Physical Educators' Self-Efficacy Beliefs Toward Inclusion: The Impact of Coursework and Practicum», *Adapted Physical Activity Quarterly*, **32**, 49-67.
- Tausch, N.; Kenworthy, J.B. eta Hewstone, M. (2006): «The contribution of intergroup contact to the reduction of intergroup conflict», in M. Fitzduff eta C.E. Stout (ed.), *Psychological approaches to conflict and war*, Praeger Security International, Westport, CT, 67-108.
- Vanman, E.J. (2016): «The role of empathy in intergroup relations», *Current Opinion in Psychology*, **11**, 59-63.
- Wendelborg, C. eta Tøssebro, J. (2008): «School placement and classroom participation among children with disabilities in primary school in Norway: a longitudinal study», *European Journal of Special Needs Education*, **23**(4), 305-319.
- Williams, T. (1994): «Disability sport socialization and identity construction», *Adapted Physical Activity Quarterly*, **11**(1), 14-31.

